WALUK 3
TXAKUR HANDIAREN BIDEA



Gidoia: Emilio Ruiz
Irudiak: Ana Miralles
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2019
Kolorea. Azal gogorra. Formatu etzana
64 orrialde. 29 x 21 cm. 15 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-17575-18-2

Apirilaren 4an salgai

Biziaren abentura

Waluk sortaren hirugarren emanaldi honetan, "Fantasiarik eroenak bat egiten du espezie desberdinetako animalien jokamoldeari buruzko datu guztiz zehatzekin, eta bien uztarketak osotasun harmoniatsu bat sorrarazten du, non natura eta etologia zehatz eta argi azaltzen diren" dio Raquel Alzate marrazkilariak

Emilio Ruizen eta Ana Mirallesen *Waluk 3. Txakur Handiaren bidea* lan honetan, protagonistek, Walukek eta Eskimok, agur esan diete Valkiari eta bere kumeei, eta bidaian aurrera egin dute, izarrek gidaturik. Laster konturatuko dira eremu mortu haiek ez direla uste bezain bakartiak eta izaki bitxiak bizi direla bertan; esterako, Loki, izaki xelebre eta oso adimentsu bat, herrestan, hegan eta jauzi egiten badakiena eta bere burua sutsuki babesten duena. Eta, jakina, han dira gizakiak ere, hartzentzat guztiz beldurgarriak diren izaki ahul, hozbera eta arriskutsu horiek, zapata parea egite-

ko hartzei larrua kentzeko gauza diren horiek, euren txakur fidelekin leretatik tiraka. Baina baliteke Artikoan gauzak hain begi bistakoak ez izatea, irudikeriak guztiz ohikoak baitira han. Baliteke hartzek eta txakurrek gauza asko izatea komunean. Baliteke lagun onak izatea eta are elkar maitatzea ere. Eta baliteke txakurren patua Waluk eta Eskimo hartz azkar eta ausarten esku egotea, Uhuapeu hontza, inguru haietan inoiz ibili den hontz jakintsu eta zentzudunena lagun dutela.

Raquel Alzate marrazkilariaren hitzetan "Zoragarria da Artikoaren edertasunari Ana Mirallesen begietatik, haren trebezia artistikoaren eskutik so egin ahal izatea, kolore ñabardura miresgarriez betetzen baitu hango eremu zabal zuria. Begietarako opari bikaina da, halaber, trazua animalien bolumen eta forma errealistetara egokitzeko duen zehaztasuna, nola gorpuzten eta biziarazten dituen animaliak, gu baino are gizatiarrago egiten dituzten keinuez hornitzen".

Alzatek adierazi duenez, "fantasiarik eroenak bat egiten du espezie desberdinetako animalien jokamoldeari buruzko datu guztiz zehatzekin, eta narrazioan ikuspegi biak argi bereiz badaitezke ere, Emilioren maisutasunari esker bien uztarketak osotasun harmoniatsu bat sorrarazten du, non natura eta etologia zehatz eta argi azaltzen diren. Maitasuna, ikasteko grina eta askatasun nahia Artikoko abentura honetako zirrikitu izoztu guztietatik azaltzen zaizkigu, beti ere umore azkar eta ironikoaz lagundurik". Waluk sortako beste bi liburuki argitaratu dira: *Waluk* (Astiberri, 2017) eta *Waluk 2. Bidaia Handia* (Astiberri, 2018).

"Erabateko naturalismoaz eta helburu ekologiko nabarmenaz, tonu samurra baina errealista baliatuta, biziaren abentura zoragarria azaltzen dute egileek".

Yexus, *El Diario Montañés*

"Samurtasunak, ekologismoak eta animaliekiko maitasunak gainezka egiten dute ipuin zoragarri honetan. Irakurtzen dugularik, ezinbestean marraztuko zaigu irribarre bat ezpainetan. Umeentzat pentsaturik dagoen arren, adin guztietakoentzat da egokia, zenbait irakurketa maila baititu".

Diego García Rouco, *Zona Negativa*



Emilio Ruiz (Santander, 1960). Arte Ederrak ikasi zituen Valentzian. 1982an argazkilari lanetan hasi zen hiri horretako publizitaterako zinema-estudio batean. 1984an dantza eta antzerkirako argazkigintzan berezitu zen, eta gero ikus-entzunezkoak egiten jardun zuen era askotako ekitaldietarako. 2001. urtean *Cuéntame cómo pasó* telesailerako lanean hasi zen, eta lehen bost denboraldietan dokumentalista eta diseinatzaile grafiko moduan eta jardun zuen. Komikiaren alorrean, zenbait gidoi egin ditu Ana Mirallesekin batera: *El brillo de una mirada* (Casset, 1990), *En busca del unicornio* (Glénat, 1996-1999) trilogia –Juan Eslava Galán-en izen bereko nobelaren (1987ko Planeta saria) egokitzapena da, Diario de Avisos-en gidoi onenaren saria irabazi zuen 1998an, eta zenbait hizkuntzatan argitaratu da–, *De mano en mano, una historia de un billete de 20 euros* (De Ponent, 2009), *Muraqqa'* (12Bis, 2011), eta orain arte argitaratu diren Waluk-en hiru liburukiak (Astiberri, 2011-2019).

Ana Miralles (Madril, 1959). Komikiak eta ilustrazioak ditu lanbide 1982az geroztik. Aldizkari ugaritan argitaratu ditu bere lanak, besteak beste, *Rambla, Madriz, Cairo, Marca Acme, Blue Press, Marie-Claire España, Vogue España* eta *Je Bouquine* aldizkarietan. Autore geldiezina eta emankorra da, eta bere ibilbide profesionalaren hastapenetako obrak haur eta gazteentzako liburuetan, testu liburuetan, afixetan, liburu azaletan, aldizkarietan, zenbait album kolektibotan, publizitatean, esku-orrietan, serigrafietan eta komunikazio grafikoarekin zerikusia duten era guztietako lanetan ikus daitezke. Antzerkirako eta zinemarako ere jardun du: jantzien diseinua, eszenografietako atzealdeak eta gidoi grafikoak.

Komiki albumak eta bildumak argitaratu ditu bai Espainiako baita Frantziako merkaturako ere. *Marruecos, mon amour* eta *Eva medusa* trilogia (Glénat) sortu zituen Antonio Seguraren gidoiekin, eta Emilio Ruizekin elkarlanean jardun du zenbaitetan. Mende berriaren hasieran, *Djinn* (Norma) sortari ekin zion, Jean Dufaux-en gidoiarekin, eta 2016an amaitu zuten; guztira 13 liburuki dira, eta, frantsesez milioi bat ale saldu dituzte guztira. Bartzelonako Azokako Sari Nagusia eskuratu duen lehen emakumea da; 2009an eman zioten, komikigintzan izan duen ibilbide luzearen aitormen gisa.

Sail bereko beste liburuak euskaraz:

Waluk
56 orrialde. 15 euro
ISBN: 978-84-16880-38-6

Waluk 2
Bidaia handia
72 orrialde. 16 euro
ISBN: 978-84-16880-89-8


BEREHALA LOKARTU ZEN ESKIMO, ETA ATZERA ERE OALTZEA ZELA AMETS EGIN ZUEN.
KORRIKA ARI ZEN, SALTOKA, BESTE HARTZ BATZUEKIN BORROKAN.


ZARATA BIXI BAT ADITU ZUEN ESKIMOK...
?
NONDIK ZETORREN ASMATU EZINK ZEGOEN.
ETA DELIBERATU ZUEN ZARATA HURA EZ ZELA AMETSETAKOA, ERREALA ZEN, OILTZADUREAN ZUEN MINA BEZAIN ERREALA.